

Kasu eta Komunztaduraren gainean
On Case and Agreement

B. Fernández & P. Albizu
(arg.)



Servicio Editorial
UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO



Argitalpen Zerbitzua
EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA





Debekatuta dago liburu hau osorik edo zatika kopiazea, bai eta berorri tratamendu informatikoa ematea edota liburua ezein modutan transmititzea, dela bide elektronikoz, mekanikoz, fotokopiaz, erregistroz edo beste edozein erataraz, baldin eta *copyrightaren* jabeek ez badute horretarako baimena aurretik eta idatziz eman.

©Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua

I.S.B.N.: 84-8373-405-2

Lege Gordailua: BI-2944-01

Inprimatzea: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua

Aurkibidea / Table of Contents

Atarikoa / Preface	9
Eccentric Agreement	
<i>Ken Hale</i>	15
Datibo sintagmen izaera sintaktikoaren inguruan: eztabaidarako oinarritzko zenbait datu	
<i>Pablo Albizu</i>	49
Person and Number Inflection in Basque	
<i>Karlos Arregi</i>	71
The Role of Verbal Agreement in Licensing Null Arguments	
<i>Arantzazu Elordieta</i>	113
On the position of verbal agreement markers	
<i>Andrés Enrique-Arias</i>	133
Absolutibo komunztaduradun ergatiboak, absolutibo komunztaduradun datiboak: ergatiboaren lekualdatzetik datiboaren lekualdatzera	
<i>Beatriz Fernández</i>	147
Objektu-komunztadura XIX eta XX. mendeetako euskal gramatiketan	
<i>Ricardo Gómez</i>	167
The German Present Participle	
<i>Martin Haiden</i>	195
A brief description of some agreement restrictions	
<i>Javier Ormazabal & Juan Romero</i>	215

Objektu-komunztadura XIX eta XX. mendeetako euskal gramatiketan

Ricardo Gómez

UPV/EHU & LEHIA

Abstract

Lan honek XIX. eta XX. mendeetako euskal gramatikagintzan objektu-komunztadura nola ulertu eta aztertu izan den azaldu nahi luke. Astarloaren aurreneko analisi morfemikotik abiatuta (§1) eta gramatika orokorreko “aditz bakarraren teoria” izeneko berrikusi ondoren (§2), hiru analisi mota bereiziko ditut, analisi bakoitzak hirugarren pertsonako objektuarekiko komunztadurari eskaini dion ikuspegia irizpidetzat harturik: Lehena gramatika orokor eta filosofikoaren ildotik doa, euskarak aditz bakarra duela proposatzen delarik (§3); zeharka bederen, teoria pasibista defendatzen dutenak ere sartu behar ditugu talde honetan (§4); izan ere, autore hauen guztien aburuz, aditz “iragankorretan” hirugarren pertsonako objektua beti markatzen da nolabait, are objekturik ez dagoen kasuetan ere. Bigarrenik, tradiziozko teoria egongo litzateke (§5): d-, z- (ø-), l- eta b- aurrizkiak hirugarren pertsonaren markatzat hartzen dira, zenbaitetan ustezko izenordainekin erlazionatzen direlarik. Azkenik, aspektu-denborazko teoria deitu dudana dugu (§6): teoria honen arabera, aipaturiko aurrizkiak (antzinako) modu-aspektu-denborazko markak dira.

0. Sarrera*

Gauza jakina da euskararen aditz flexioak zenbait argumenturekin komunztatzen duela: argumentu absolutibo, ergatibo, datibo eta, kasuan, alokutiboarekin. Bestalde, euskararen morfologia ergatiboa dela eta, egitura iragangaitzen (zehazkiago, ez-akusatiboan) argumentu bakarrak eta iragankorretako objektuak kasu bera eta komunztadura-hizki berak dituzte, absolutiboari dagozkionak alegia. Baina XIX. mendean eta, neurri txikiagoan bederen, XX. mende hasieran, tradiziozko gramatikagintzaren moldeek, nagusiki latindar gramatikan oinarrituek, oraino sendo dira eta latinaren morfologia nominatibo-akusatiboaren eredua —besteak beste, subjektuarekiko komunztadura besterik kontuan hartzen ez duena— da hizkuntza guztien gramatikari aplikatu ohi zaiona.

* Artikulu hau “Estudios de lingüística histórica vasca: morfología, dialectología y lexicografía históricas” (PI97/49) ikerketa-proiektuaren barruan kokatzen da. Aurreko bertsioa Hizkuntzalaritza Mintegian gazteleraz aurkeztu zen. Ene eskerrona Hizkuntzalaritza Mintegiko entzulegoari, bertan egindako galdera eta ohar baliotsuengatik. Mila esker orobat Beñat Oyharçabali eta bi ikuskatzaile izengabeei, euren iruzkin eta zuzenketek biziki aberastu baitute testua.

Lan honek, eredu horretatik abiatuz euskal gramatikagintzan objektu-komunztadura nola ulertu den eta zein azterbide proposatu diren azaldu nahi luke. Euskal aditzaren objektu-komunztadurari buruzko azterketen bi abiaburu aurkeztuko ditut, alegia:

- a. Astarloaren ideiak (§1): euskal aditzaren lehen analisi morfematikoa dugu harena. Pertsona-komunztadura hizkien tradiziozko analisiaren oinarriak ezarri zituen, bereziki *Discursos Filosóficos*eko (Astarloa 1883 [ca. 1804-1806]) “Características de personas” (465-468.or.) izeneko kapituluan.
- b. Gramatika orokorraren ideiak eta, batik bat, “aditz bakarraren teoria” deiturikoa (§2). Halaber, hiru analisi mota bereiziko ditut, analisi bakoitzak hirugarren pertsonako objektuarekiko komunztadurari eskaini dion ikuspegia aintzat harturik. Hiru ikuspegiok ez dute inondik ere elkar baztertzen; aitzitik, historikoki loturik agertzen zaizkigu eta, noizik behin, elkarren osagarri ere gerta daitezke, ikusiko dugunez. Honakoak dira:
 - a. Gramatika orokor eta filosofikoa (§3) eta, zeharka bederen, teoria pasibista (§4): aditz “iragankorretan” hirugarren pertsonako objektua beti markatzen dela aldarrikatzen dute, are objekturik ez dagoen kasuetan ere. Pasibisten formulazioa apur bat konplexuagoa da.
 - b. Tradiziozko teoria (§5): *d-*, *z-* (ϕ -), *l-* eta *b-* aurrizkiak hirugarren pertsonaren markatzat hartzen dira eta, zenbaitetan, ustezko izenordainekin erlazionatzen dira.
 - c. Aspektu-denborazko teoria (§6):¹ *d-*, *z-* (ϕ -), *l-* eta *b-* aurrizkiak (antzinako) modu-aspektu-denborazko markak dira.

1. Astarloa (1883 [ca. 1804-1806])

Astarloak euskal aditzaren aurreneko morfema-zatiketa burutu zuen. Euskal aditzaren zatiketari ekiteko aintzat hartu zituen oinarri teorikoak ez dira lan honen aztergai (ik. horretaz Gómez 1999); nolana ere den, oinarriok albo batera utzirik, pertsona, denbora, modu eta abarren markak aski zuzen identifikatu zituela ohartarazi nahi nuke.

Gure gaiari loturik baitaude, Astarloaren teoriaren bi puntu nabarmendu nahi nituzke, alegia ekonomi hatsarrea eta euskaran (hots, jatorrizko hizkuntzan, hizkuntza “naturalean”) zortzi pertsona bereiztea:

¹ “Tradiziozko teoria” eta “aspektu-denborazko teoria” deiturak lan honetan erabiltzen dira lehen aldiz, zenbait ideia biltzen dituzten etiketa identifikatzaile gisa erabiltzen ditudalarik. Kasu bakoitzean ideia hauek biltzen dituen ardatza euren antzekotasun “tipologikoa” da; izan ere, batzuetan —paralelotasunarekin jarraituz gero— ez dute inongo “ahaidetasun genetikorik” erakusten.

a. Astarloaren formulazioan, naturaren arabera adierazi behar den oro adierazteko, hizkuntzak ahalik eta baliabide formal gutxien erabiltzea eskatzen du ekonomiak. Honekin batera, Astarloak hizkien (*características*) eta esanahien arteko bana-banako erlazioaren perfekzioa aldarrikatzen du. Ondorioz, erlazio honi ekonomiaren hatsarrea erantsiz gero, Astarloak behin eta berriz defendatzen du bereizkuntza batean ezaugarrietariko bat betiere ezaugarririk eza dela. Horregatik kategoria bakoitzean terminoetariko bat zero morfemak (\emptyset) markatzen du, oro har semantikoki markatugabea dena (adibidez, numeroan singularra, kasuetan *paciente* edo absolutiboa, etab.). Astarloak gramatikaren kategoria eta azpikategoria guztietan ezartzen du ekonomia hatsarrea, sistema sendo eta zehatza lortuz.

c. Zortzi pertsona bereizte hori (1883 [ca. 1804-1806]:424-426) bigarren pertsona singularra hirutan banatzeak dakar: eztabadako tratamendua (*cortés*), hitano (*familiar*) maskulinoa eta hitano femeninoa, alegia (ik. (2)ko taula). Bereizkuntza honek agerian jartzen dizkigu Astarloaren planteamendu apriorizkoak. Izan ere, aitorturiko helburuen arabera jatorrizko hizkuntzaren gramatika bilatzen ari delarik ere, argi dago aldez aurretik euskara duela buruan eta ez dituela beti hain irizpide logiko eta naturalak erabiltzen. Horrela, bada, ekonomia hatsarrea pertsona-hizkiei ezarri baitizkie, Astarloak dio ezaugarririk eza, batetik, singularreko hirugarren pertsona egilean eta, bestetik, singularreko bigarren pertsona maskulino jasailean gertatu behar duela, naturak hala agintzen duelako gertatu ere:

(1) Por la misma economía suponemos que el no tener característica alguna de persona el auxiliar, ha de ser señal de que el agente es tercera persona de singular, y el paciente la segunda masculina del mismo número. (1883 [ca. 1804-1806]:465)

Beraz, adizki laguntzaile “ekonomikoa” *au* (\emptyset -*au*- \emptyset) ‘hau’ litzateke. Ondoko taula honek Astarloak (1883 [ca. 1804-1806]:465-468) proposaturiko pertsona-hizki guztiak aurkezten ditu, arazo konplexu edo zalantzarik argitu nahian Astarloaren beraren pasarte batzuk gehitzen ditudalarik:²

² Honako laburdura hauek erabili ditut: c=*cortés* (eztabadakoa), f=femeninoa, fam.=*familiar* (hitanoa), LAG=laguntzailea(ren erroa), m= maskulinoa, p=plurala.

(2)

	jasaillea (paciente)	egilea (agente) / hartzailea (recipiente)
1	n-	-t-, -t
2c	z-	-zu-, -zu
2f	∅-LAG-n ⁽ⁱ⁾	n-LAG ⁽ⁱ⁾
2m	∅-	-aa-, -k
3	d-, fam. ∅- ⁽ⁱⁱ⁾	-∅ / -a-, -a
1p	g-	-gu-, -gu
2p	z-LAG-z	-zu(b)ee ⁽ⁱⁱⁱ⁾
3p	-z	-(b)ee ⁽ⁱⁱⁱ⁾

(2i) La segunda persona femenina tendrá por característica paciente la letra *n* pospuesta al auxiliar, á quien no antecederá persona alguna cuando esta persona es paciente, y cuando es agente ó recipiente, se conocerá por la característica de paciente que antecederá á dicho auxiliar. (1883 [ca. 1804-1806]:466)

En la segunda conjugacion [*Au-na*] se ven dos letras más que en la primera, esto es, la *n* y la *a*. La *n* es característica de segunda persona femenina paciente y la letra *a* es letra eufónica. Si la *n* se coloca despues de la radical *au*, y no ántes como lo tiene de costumbre el bascuence en todos los tiempos reales con las características de personas pacientes: el motivo es el no confundirse con la primera persona de singular paciente: por esto es que la *n* inicial es característica de primera persona paciente en el tiempo real y agente en el apostrofico; pero para que la *n* sea característica de segunda femenina ha de hallarse al fin ó en medio de dccion. (1883 [ca. 1804-1806]:716)

(2ii) La tercera persona será paciente en las conjugaciones corteses cuando precede al auxiliar la letra *d*, y en las familiares no necesita de característica alguna ni para ser agente ni para ser paciente; de modo que cuando en estas conjugaciones no hay característica de agente ni de paciente, será señal de que una tercer persona de singular es el agente, y otra tercera del mismo número el paciente. (1883 [ca. 1804-1806]:466)³

(2iii) Las características de agente y recipiente, se pluralizan añadiendo á las letras que las indican, una doble *e* cuando tienen consonantes; pero siendo vocales se sustituyen por la dicha letra *e* doble. (1883 [ca. 1804-1806]:466)

Azkenik, Astarloak datibo-ergatibo hurrenkera erlatiboaz ohartarazten du:

³ Cf. orobat "...otra tercera persona del mismo número singular paciente, caracterizada en la *d* inicial de dicho auxiliar [*d-eu-ts-a-t*]" (Astarloa 1803:150).

(3) Las personas recipientes se distinguen de las agentes en que aquellas van colocadas inmediatamente despues del auxiliar, y por consiguiente anteriores á las personas agentes. (1883 [ca. 1804-1806]: 466)

Behin baino gehiagotan Astarloak iradokitzen du pertsona-hizkiak pertsona-izenordainetatik datozela (*z-* < *zu*, *n-* < *ni*, *g-* < *gu*):

(4) En la tercera conjugacion [*Z-au*] hallamos por característica paciente la letra *z*, nota de segunda persona cortés, como que viene del pronombre *zu*, usted. [...] En la cuarta conjugacion [*N-au*] la característica paciente es la *n* y denota primera persona del singular, como que viene del pronombre *ni* yo. [...] En la sétima conjugacion [*G-au*] la persona paciente se halla caracterizada por la letra *g* y nos dá á entender la primera persona del plural, como que es la misma *gu*, nosotros, suprimida la *u*. (1883 [ca. 1804-1806]:716-717)

Edo izenordain erakusleetatik datozela, hirugarren pertsona hartzaileez den bezainbatean:

(5) En la conjugación 18 [*Autza* ‘Aquél te le ha muerto’] la persona recipiente es tercera de singular indicada en la letra *a* final, que es nota de esta persona, pues es el mismo pronombre con que damos á entender el *aquel* de la lengua castellana. [...] y en la conjugación 20 [*Autzee* ‘Aquél te les ha muerto’] la tercera de plural es la que recibe, ó el dativo indicado por las dos *ee* que viene del pronombre *aeec*, aquellos. (1883 [ca. 1804-1806]:718)

Astarloak ez ditu iraganaldiko (*tiempos apostroficos*, bere sisteman) komunztadura-hizki bereziak aipatzen —gorago agerturiko *n-* izan ezik; ik. (2i)—, ezta adizki irrealis (*l-*) eta aginterazkoak (*b-*) ere. Aditz sistema azaltzen duelarik, orainaldiko adibideak erabiltzen ditu nagusiki.

Laburbilduz, Astarloaren lanak euskararen komunztadura-hizkien tradiziozko analisiaren oinarritzko gai nagusiak agertzen ditu; bide batez, ondoko autore batzuen lanetan baino askoz landuago agertu ere. Honako gai hauek ezartzen ditu:

- a. Argumentu motaren arabera komunztadura-hizki desberdinak daudela ohartaraztea.
- b. Kasu bakoitzean zein hizki diren zehaztea.
- c. Pertsona-komunztadura hizkien jatorrian izenordainak daudela iradokitzea.
- d. Pertsona-komunztaduraren eta numero-komunztaduraren arteko nahasketa.

2. Gramatika orokorra eta aditz bakarraren teoria

Gramatika orokorra, aise esateko, hizkuntza guztien arazo orokorrei buruzko hausnarketa da; aurreneko formulazioetatik batez ere irizpide logikoetan oinarritu zen, korrante filosofikoaren arabera harrezkero “arrazoia” edo “natura” etiketez hornituko ziren irizpideetan (Auroux & Clérico 1992, Dominicy 1992).

Hizkuntzalaritzaren historian zehar honelako hausnarketek tradizio luzea izan badute ere —*modistae* (XIII-XIV. m.), gramatikari filosofo humanistak (Scaliger, Sanctius, Vossius, Campanella, etab.)—, bultzadarik handiena Port-Royaleko lanen argitalpenaren ondotik dator: *Grammaire générale et raisonnée* (1660) eta *Logique* (1662) (ik. Donzé 1967 eta Wheeler 1995, besteak beste). Port-Royaleko lanek elkarri loturiko bi helburu erdietsi nahi zituzten: hizkuntzaren arau orokorrak aurkeztea eta, horretaz baliatuz, edozein hizkuntza partikular arin eta erraz ikasteko gidaliburua lortzea. Port-Royaleko autoreak honako premisa honetatik abiatu ziren, alegia hizkuntza gogoaren isla dela eta, hortaz, gramatika ere halakoxea dela. Ondorioz, gogoaren funtzionamendua berdina bada gizaki guztiengan, gramatika ere berdina izango da oroventzat.

Oraingo honetan, Port-Royaleko lanetako bi arazo nabarmendu nahi nituzke, perpausaren analisia eta aditz-teoria hain zuzen ere:

a. *Perpausaren analisia*: Port-Royaleko logikak gogoaren lau eragiketa bereizten ditu eta horietariko batzuek paralelismo garbiak aurkitzen dituzte gramatikaren unitateen artean (Wheeler 1995:172-173):

- i. Bururatzea: ideia bat izatea, zerbaitetan arreta jartzea.
- ii. Judizioa: Bi ideia batzea, norbaiti bururatu zaiona halaxe dela, edo ez dela, baieztatzen edo ezeztatzen delarik. Judizioa, hortaz, proposizioa ere bada.
- iii. Arrazoiketeta: Bi judiziotatik abiatuz, hirugarren bat eratzea.
- iv. Ordenamendua: Zenbait ideia, judizio eta arrazoiketaren hurrenkera, gai baten ezagutza erdiesteko modurik egokienean antolatuak.

Hauetarik aurreneko biak dira bereziki interesatzen zaizkigunak: Lehenik, ideien bururatzeak funtsezko eginkizuna betetzen du perpaus-atalen sailkapenean. Izan ere, Port-Royaleko gramatikak zatiketa bitarra ezartzen du, hizkuntza guztientzat balio duena, jakina: alde batetik, gure pentsamenduen objektuak adierazten dituzten hitzak eta, bestetik, gure pentsamenduen itxura edo modua adierazten duten hitzak bereizten dira. Lehenbiziko kategorian izenak (hala substantiboak nola adjektiboak), artikulak, izenordainak,

partizipioak, preposizioak eta adberbioak sartzen dira; bigarrenean aditzak, juntagailuak eta interjekzioak ditugu.

Bigarrenik, judizioak ezartzea gogoaren eragiketa nagusia da; hots, bi ideia batzea, euren arteko identitatea baieztatzeko edo ezeztatzeko ($A = B$ edo $A \neq B$). Hortaz, hitz egitea proposizioen bitartez judizioak adieraztea baino ez da. Perpausa proposizio bat da eta proposizioa bi ataletan banatzen da: subjektua eta atributua; biak dira gogoaren objektuak, bi ideia dira. Subjektua eta atributua kopularen bitartez lotzen dira; honen eginkizun bakarra batasun hori baieztatzea da.

b. *Aditz-teoria*: Azaldu berri dudan proposizioaren egiturarekin zuzenean loturik, Port-Royaleko autoreen aburuz aditza baieztatzeko erabiltzen den hitza da. Horregatik, dagoen aditz bakarra kopula da (hots, *da*). Teoria honen arabera, “aditz” deitu ohi diren gainerako hitzak unitate konplexuak lirakeke, bertan baieztapenari beste adieraren bat gehitu zaiolarik: subjektua (*naiz*), atributua (*dabil*) edota denbora (*zen*). Horrela bada, aditzen lehen banaketa bitarra ezartzen da: aditz “substantiboak” (benetako aditz bakarra, baieztapen hutsa, kopula alegia) eta aditz “adjektiboak” (gainerakoak).

Port-Royaleko lanek arrakasta eta eragin handia izan zuten XVIII. mende osoan eta XIX.aren zati batean, bereziki Frantzian, non hizkuntzalaritza historiko-konparatzailearen nagusitasuna aski berandu iritsi baitzen. Nolanahi ere den, garai hartan gramatika orokorraren helburuak eta formulazioak hein batean aldatu ziren, batik bat gramatikari filosofo sentsualisten (Condillac, esaterako), entziklopedisten (Du Marsais, Beauzée) eta, geroago, ideologoen (Desttut de Tracy buru) eskutik. Aditz-teoriaz den bezainbatean, urte haietako autoreen berrikuntzarik nabariena honakoa da: aditz substantiboak ez du jadanik “baieztapena” adierazten, “existentzia” baizik.

Azkenik, ohartarazi behar da gramatika orokorraren metodo logiko-arrazionala eta haren argudiatze motak hizkuntza jakinen gramatikak egiteko ere erruz erabili izan zirela. Gehienetan, haatik, ez ziren lan horietan hizkuntza guztien ezaugarri komunak bilatu nahi, baizik eta delako hizkuntza hark arrazoiaren eta logikaren legeei men egiten ziela frogatu.

Lan mota horren barnean sartu behar ditugu, hain zuzen ere, XIX. mendean gramatika orokorraren urratsei nola edo hala jarraitu zieten euskal gramatikariak. Agian, salbuespen bakarra Astarloa litzateke, bera baita euskarari buruzko hausnarketak, era berezi batean bada ere, hizkuntzaren azterketa orokor baterantz bideratu zituen autore bakarra.

3. Aditz bakarraren teoria eta euskal aditzaren objektu-komunztadura

Ekin diezaiozun, bada, XIX. mendean euskal aditzaren objektu-komunztadura aztertzekeo aditz bakarraren teoriaren ereduari jarraitu zioten saioen aurkezpenari. Oro har, proposamen hauen egileek ahaleginak egin zituzten euskal aditzak forma ugari dituela eta, halarik ere, sailkapen zeharo logiko, erraz eta erregular batean bil daitezkeela erakusteko. Egile hauetariko batzuek euskal aditza ikasteko erraztasuna ere aipatu zuten berariaz.

Ikusmolde logiko horren baitan, aditz iragankorrek betiere objektu-komunztaduraren hizkia badutela proposatu zuten, are objektu jakinik ez dagoen kasuetan ere. Izan ere, bestela, adizki iragankorrek ez badituzte beti egilea eta jasailea barneratzen, zertarako ote?, zergatik ez erabili iragangaitzak?

3.1. Darrigol [1827]

Darrigolek ez zuen euskal aditzaren egitura Astarloak bezain xeheki aztertu. Aitzitik, aditzaren analisiak helburu garbia du harengan: euskarak bi aditz besterik ez duela erakustea (*n(a)iz* eta *dut*). Hala ere, bi aditzok, azken finean, aditz bakar baten bi aldaeratzat har daitezkeela iradoki zuen (Darrigol [1827]:109); eta badirudi honelaxe ulertu zutela Darrigolen gogaideek (ik., esaterako, Campi3n 1884:308).

Teoria honen ondorioz, Darrigolek proposatzen du adizki jokatu-gabeak ez direla benetako aditzak, izenak edo adjektiboak baizik; orobat, adizki trinkoak (*verbes subalternes* deitzen dituenak) *n(a)iz* edo *dut* benetako aditzetariko baten eta adizki jokatu-gabe baten nahastearen emaitza baino ez dira:

(6) En effet, *nago* r3sulte de la combinaison de *naiz* avec *egon*: *naiz* avec *ibil* donne *nabila*; *naiz* avec *etor* fait *nator*. [...] car qui ne voit *dut erabil* dans *dabilat*, *dut eraman* dans *deramat*, *dut eraunts* dans *derauntsat*, &c.? ([1827]:109)

Hain zuzen ere, Darrigolek pertsona-hizkiei buruz eskaintzen dituen azalpen bakarrak adizki trinkoen azterketa honen barruan kokatzen ditu, euren iturburua diren *niz* eta *dut* aditzekiko paralelismoaz ohartarazi nahi baitu, bere teoriaren bermetzat erabiliz ([1827]:137hh):

(7) ...et l'on verra d'abord que la premi3re articulation, qui est l'expression du sujet, est constamment la m3me, soit dans les inflexions du verbe primitif (*niz*), soit dans les inflexions correspondantes du d3riv3 *nago*. Dans l'un et dans l'autre ce sont les initiales communes *n*, *h*, *d*, *g*, *c*, *d*. ([1827]:140)

Aipu honetan esanak aintzat hartuz gero, irudi luke *d-* hirugarren pertsonako subjektu-markatzat hartzen zuela Darrigolek. Haatik, NOR-NORI, NOR-NORK eta NOR-NORI-NORK paradigma “iragankorrak”⁴ aurkezten baditu ere, ez du objektu zuzenaren eta zeharkako objektuaren markei buruzko inolako oharrik egiten, eta ezin dugu jakin paradigma horietako *d-* pertsona-hizkitzat jotzen ote zuen, halakorik susma badezakegu ere.

Dakidalarik bederen, Darrigolen lanean agertzen da lehenbizikoz gramatika orokorrari jarraitzen dioten autoreengan —eta ez hauengan soilik— behin eta berriz errepikatuko den iritzia, alegia adizki iragankorretan objektu-komunztadura beti adierazten dela:

(8) Il a été dit que le mécanisme de ce verbe [transitive] consiste à présenter toutes les combinaisons que peuvent exister entre les pronoms *je, tu, vous, il, nous, vous, ils*; de telle sorte que chacun de ces pronoms paraisse successivement en nominatif, en régime direct et en régime indirect.⁵ Conformément à cette doctrine, nous n'aurions pas le moyen de traduire les formules françaises *j'ai, tu as, il a, &c.*; car notre verbe transitif, pris dans toute sa force, renfermant toujours l'expression d'un complément déterminé, les formes *duc, dut, du*, [sic] ne disent pas seulement *j'ai, tu as, il a, &c.*, leur sens est, *je l'ai, tu l'as, il l'a, &c.* Mais rien n'empêche qu'on ne fasse abstraction de tout complément déterminé; et c'est en effet par le moyen d'une abstraction autorisée par l'usage, que nous disons, *jan dut* (j'ai mangé), *ikhusi dut* (j'ai vu), *entçun dut* (j'ai entendu), &c. (Darrigol [1827]:137)

Ordea, harrigarria badirudi ere, sintaxizko atalean euskal aditzak objektuaren numeroarekiko komunztadura duela aipatzen du, baina ez du deus ere esaten objektuekiko pertsona-komunztadurari buruz ([1827]:145).

⁴ Darrigolek darabilen terminologian “iragankor” terminoak esanahi bikoitza du: Batetik, pertsona bat baino gehiago dituzten aditzak dira, bata nominatiboan (hots, absolutiboan) eta bestea(k) zehar-kasuren batean; aditzaren esanahia pertsona batetik bestera “iragaiten” da (NOR-NORI paradigmari buruz ari delarik baino ez du adiera hau erabiltzen, letra etzanez erabili ere; ik. [1827]:118). Hauxe da, hain zuzen, besteak beste Larramendik darabilen adiera (Larramendi 1729:170hh). Eta hauxe da, orobat, terminoaren lehen adiera eta, azken buruan, Priszianorenganaino gibeleratu daiteke. Baina, beste alde batetik, Errenazimenduko latindar gramatiketan nagusi da aditz iragankorren saila “aktiboen” barruan sartzea; hots, objektu zuzena dutenak dira iragankorrak (ik., Antzinateko eta Espainiako tradizioei buruz, Gómez Asencio 1985:128hh). Denbora aurrera joan ahala, “aktibo” ezaugarri semantikoa eta “iragankor” ezaugarri sintaktikoa gero eta nahasiago agertuko ziren eta hori da Darrigolen lanean aurkitzen dugun bigarren adiera, adiera nagusia alegia. Larramendiren kasuan, honako aditz sailkapena dugu: aktiboak eta neutroak, eta aktiboen barnean bi aditz-joko absolutu (*dut, ditut*) eta hogeita bat aditz-joko iragankor edo erlatibo (NOR-NORI-NORK eta NOR-NORK pargimeei dagozkienak).

⁵ Cf. “Affirmer l'influence la plus étendue que se puisse imaginer, l'action la plus générale possible d'un sujet sur un autre, telle est la valeur première et la fonction essentielle de notre verbe actif. Renfermer en soit les pronoms tant singuliers que pluriels des trois personnes; épuiser avec un laconisme parfait toutes les combinaisons mathématiquement possibles entre les six pronoms personnels, en les présentant d'abord deux à deux, puis trois à trois; exprimer, avec une facilité qui étonne, une variété qui enchante, une rapidité d'expression que rien n'égale, toutes les attitudes ou situations respectives que peuvent prendre ces divers pronoms, employés en sujet et en complément, en complément direct et en complément indirect; tel est le mécanisme intéressant et la richesse singulière de ce verbe incomparable” (Darrigol [1827]:125-126). Pasarte honetan “aktibo” deitzen badio ere, hamar bat orrialde beherago “iragankor” berba erabiliko du (ik. aurreko oharrean esandakoa).

3.2. Chaho (1836)

Chahok ere euskal aditzaren bikoiztasuna onartu zuen, Lécuse-k (1826) eta Darrigolek proposatu zuten bezala. Baina, Chahoren iritziz, *dut* ez da *niz*-en aldaera bat baizik. Chahok uste du euskaran aditz bakarra dagoela: *iz*; aditz hau, gainera, izen bat da jatorriz: *hitz*. Egia esan, Chahok gramatikan hitz kategoria bakarra onartzen du, izena (Chaho 1837:35, 51, 170; ik., halaber, Oyharçabal 1998:439).

Darrigolek adizki iragankorrek beti adierazten dutela objektua ohartaraztea besterik egin ez zuelarik, Chahok, horrekin batera, uste hau berretsi nahi duen analisi formala eskaintzen du eta, aldi berean, adizki iragangaitzak eta iragankorrak aditz bakar baten aldaeren multzoan biltzen ditu:

(9) Il est certain que la forme *Dut* n'est que la troisième personne du verbe *Niz*; *da*, avec combinaison d'un double rapport: *dahoura* lui est, il est: le *t* final exprimant une relation personnelle à l'individu qui parle. *Dut* signifie en définition, lui est à moi, je l'ai, j'ai. Voilà la vraie raison pour laquelle la conjugaison de *Dut* emporte l'expression d'un régime j'ai, je l'ai. (Chaho 1837:82)

Hots, $dut = da + houra + t$. Gauza bertsua gertatzen da iraganaldian eta aginteran:

(10) Le passé de *Dut*, *nian* ou *nuen*, j'avais je l'avais, offre dans sa décomposition syllabique *nihurane*, lui, était de moi: ainsi des autres modes. (Chaho 1837:82)

Analisi konplexuagoa da iraganaldirako proposatzen duena: $nian / nuen = ni + houra + ne$. Aginterari dagokionez, azkenik:

(11) L'impératif de *Dut*, *ezak ezadak*, qui n'a jamais de valeur que comme forme auxiliaire, dérive de l'impératif *iz* avec déterminante *a* et relation *k*; il s'écrit *izak*, *izadak*, dans la plupart des dialectes, et se combine avec les noms actifs pour compléter la conjugaison. (Chaho 1837:82)

Alegia, $ezak = iz + a + k$ (non $iz = haiz$ 'izan hadi').

Niz eta *dut* aditzen batasunaren aldeko beste argudio bat eskaintzen du bidenabar: *niz*-en forma alokutiboak *dut*-en bigarren pertsonako formen modukoak direla (Chaho 1837:82).

Chahok paradigma ugari eman zituen bere lanean, baina ez zuen adizkien morfologi egituraren azterketa zehatza burutu. Ohar bat edo beste eskaini zigun han-hemen, besterik ez; esaterako, eta gure gaiari dagokiolarik, baldinkerako hirugarren pertsonan *l- d*-ren lekuan dagoela dioelarik (Chaho 1837:72).

3.3. Inchauspe (1858)

Segur aski, Inchauspe da euskarak aditz bakarra duela gotorkien aldarrikatzen duen euskalaria. Haren liburuaren hasierari begiratzea baino ez dago, Bonaparte Printzeari egindako eskaintzaren ondoren, honelaxe hasten baita:

(12) La langue basque n'a qu'un verbe. (Inchauspe 1858:1)

Aditz bakarra bi “bozetan” sailkatzen du: iragankorra eta iragangaitza. Liburuaren gainerako orrialdeak baieztapen hau frogatzeari eskaintzen dizkio.

Inchauspek adizki iragankorrek objektua nahitaez adierazten dutelako uste ezaguna errepikatzen du, baina ez du haren aldeko argudiorik ematen:

(13) DU exprime toujours une relation avec un objet autre que le sujet et demande un complément direct. (Inchauspe 1858:22)

Darrigolek eta Chahok ez bezala, Inchauspek subjektu, objektu zuzen eta zeharkako objektuaren markak azaltzeko atal bat eskaintzen du (Inchauspe 1858:435-439):

a. Begien bistako kasuetan (batik bat pluralekoetan) pertsona-izenordainekiko erlazioa iradokitzen du (*n-* eta *ni*; *h-* eta *hi*; *g-*, *-gu* eta *gu*; *z-*, *-zu* eta *zu*; *z-*, *-zie* eta *zíek* ‘zuek’).

b. Hirugarren pertsonako subjektuari dagokionez, honako hizki hauek proposatzen ditu:

(14) *D*, *L* ou *Z* initiales pour les deux voix; l'impératif a de plus le *B* initial (Inchauspe 1858:436)

Hala eta guztiz ere, ez du *d-* egiazko pertsona-hizkitzat jotzen, sendogarri artikulatortzat baizik. Hasierako kontsonante hori ez dela orainaldiko hirugarren pertsonako adizki guztietan agertzen du irizpide:

(15) La troisième personne indéfinie est la plus simple dans toutes les formes, et elle semble devoir être considérée comme étant la forme radicale. Cependant, il serait possible que la forme radicale primitive fût plutôt *A*, *U*, et que la *D*, dans *da*, *du*, eût été introduit pour donner aux voyelles *a*, *u*, une articulation plus distincte et plus forte. Ce qui donnerait du fondement á cette opinion, c'est la disparition du *D* dans la composition des terminatifs; ainsi de *da*, il est, on a fait: *záit*, il est à moi; *záiku*, il est à nous; *záyo*, il est à lui; et le Biscayen, au lieu du *z*, emploi le *y*: *yat*, *yaku*, *yako*. Le *D* de la voix transitive *DU* se conserve plus généralement dans les terminatifs; cependant, il disparaît aussi dans

certain terminatifs; ainsi on dit *nai* ou *nau*, pour exprimer il a moi; *hai*, *hau*, pour il a toi. Ces terminatifs sont composés de *ni*, moi; *hi*, toi; et du verbe DU ou U, AU. (Inchauspe 1858:437)

c. Baina, harrigarria badirudi ere, hirugarren pertsonako objektu zuzenaren hizkiei buruz ari delarik, ez ditu (14)ko aurrizkiak errepikatzen eta “adizki sinple edo zehaztugabeen” bidez adierazten direla baino ez du aipatzen:

(16) La troisième personne du singulier, exprimée en français par *le*, *la*, et les régimes directs animés ou inanimés indiqués par les mêmes articles, se rendent *par la forme simple ou indéfinie* (Inchauspe 1858:438; azpimarra nirea da)

Ez da hain harrigarria, baina, kontuan hartzen badugu lehentxeago aurrizkiak subjektuaren markatzat hartu dituela eta, beraz, ezin ditu orain objektu zuzenaren markatzat ere jo.

3.4. Bonaparte (1869, 1876, 1877)

Bonapartek, bere lanetan han-hemenka, euskal adizkien sailkapen desberdinak proposatu zituen, eta sakabanatze horrek haren aditz-teoria ulergaitz eta aztergaitz bilakarazten du sarriegi. Jarraian, gure gaiari hertsikien lotzen zaizkion arazoak aurkezteari ekingo diogu. Ezer baino lehen, ohartarazi nahi nuke adizki iragankorrek objektua nahitaez adierazi behar izatea Bonaparteren aditz-teoriaren erdigunean kokatzen dela. Orobat, Bonaparte, oso modu berezian bada ere, aditz bakarraren teoriaren aldekoa da. Azal ditzadan bi puntuok.

Adizki jokatuen sailkapenaren barnean Bonapartek izen adiztuen (*noms verbisés*) eta aditz-bukaera hutsen (*terminatifs (verbaux) purs*) arteko bereizketa egiten du. Lehenbizikoek izen-etorkiko erroa dute; bigarrenek, aldiz, ez dute inolako errorik agertzen:

a. Aurreneko sailean adizki trinkoak, *izan* iragangaitza (*naiz*, *da*), eta *iraun* (*diro*, *ziroen*, *diroke*), *adi* (*dadin*, *nadila*) eta *ki*⁶ (*dakion*, *zekiola*) laguntzaileak sartzen dira; *izan* iragankorra (*dezadan*, *dezake*) eta *egin* (*dagidan*, *dagizula*) bi sailen arteko zubia dira, ez baitute indikatiboko adizkirik.

b. Aditz-bukaera hutsen bereiztea, bestalde, Bonaparteren aditz-teoriaren funtsezko puntua da. Errorik gabeko adizkiak dira. Izan ere, izenordainez (subjektua, objektu zuzena,

⁶ Adizkion erroa *egon* edo *egoki* (Bonaparte 1877:42) izan litezke, baina *ki* bera izentzat ere badu (1877:44).

zeharkako objektua, alokutiboak)⁷, modu- eta denbora-hizkiez eta “letra eufonikoez” osaturik daude, eta osagai hauen guztien elkartzea da, hain zuzen ere, *aditza* sortarazten duena. Garbitasun hau, aditzik gabeko aditz hau, oso deigarri gertatu zitzaion Bonaparteri, eta horrexegatik eskaini zion printzeak leku berezia bere ohar teoriko urrietan, kutsu metafisikorik falta ez bazaio ere:

(17) Le Verbe pur est pour nous quelque chose d’insaisissable, qui se manifeste toutefois au milieu d’éléments matériels fort saisissables et qui, loin d’en être le produit, les domine de toute sa puissance en les vivifiant. Le Verbe c’est la Vie. (Bonaparte 1869:159)

Atariko ohar hauei beharrezko deritzet, Bonapartek *dut* (hots, aditz-bukaera huts bat) bezalako adizkietarako aurkezten duen analisisa ulertuko bada. Bonapartek proposatzen du adizki iragankorren bereizgarria beren objektu-marka erakuslea izatean datzala:⁸

(18) De toutes les permutations que l’on observe dans le verbe basque, celles des syllabes *au*, *dau* sont sans contredit les plus nombreuses et les plus importantes. Ce sont bien ces syllabes en effet, ou leurs permutations (et c’est en cela surtout que consiste notre théorie du Verbe basque) celles qui représentent le régime direct singulier de troisième personne, *au* n’étant lui-même que le démonstratif français *ceci*. (Bonaparte 1869:xi)

Hau da, *dut* = *dau* + *t*, *nau* = *ni* + (*h*)*au*, etab. Beste alde batetik, *dau* erakuslearen aldaera bat baino ez da (*au*, *hau*, *haur*, *gau*, *kau* eta *kaur* beste aldaerekin batera) —zehazkiago, *gau*-ren aldaera litzateke, printzearen teoriaren bertsioetariko batean behinik behin (Bonaparte 1877:37)— eta aditz-bukaeretan bilakaera franko izan ditzake:

(19) Nous disons donc que la syllabe *au*, telle qu’elle existe dans son intégrité primitive en *dau* ‘il l’a’ du bisciaïen, peut se transformer en *a*, *e*, *i*, *o*, *u* *ü*, *ai*, *ei*, *eu*, *aa*, *ao*, *ie*, *ii*, *io*, *iu*, *iü*, *oo*, *üi*, *üü*. (Bonaparte 1869:xi)

Ondoren, bilakaera bakoitzaren adibideak ematen ditu, bakoitzaren geografi jatorria ere zehazten duelarik.

⁷ Diodan, bidenabar, “alokutibo” terminoa Bonapartek sartu zuela euskalaritzan, euskarari buruzko bere lehenbiziko lanean (Bonaparte 1862:19).

⁸ Berebat zeharkako objektuari dagokionez, non *-o-* < *oni*.

Hortaz, Chahoren analisiaren oso antzekoa dugu printzearena, nahiz eta teoria konplexuago batean txertaturik egon. Azken finean, bien helburua adizki iragankorretan objektuak nahitaez agertu behar izatea formalki azaltzea da.

Adizki iragankorretako erakuslearen beste adibide bat Bonapartek “*izan* iragankorra” deitzen duen aditzean (= **ezan*)⁹ kausitzen dugu. Orobat, *izan* iragangaitza eta *izan* iragankorra egoteak berebiziko adibidetzat jotzen du Bonapartek Inchausperen bi bozen teoriaren alde egiteko:

(20) Ce nom verbal qui signifie en même temps “eu” et “été” dans cinq des huit dialectes basques [...] est un argument très-favorable aux deux voix dans le verbe. [...] Le changement de l'*i* initial de *izan* en *e* dans *dezan*, est dû au démonstratif qui s'amalgame, pour ainsi dire, avec l'adjectif verbal. (Bonaparte 1876:8)

Alegia, *dezan* = *dau* + *iza-n*. Puntu honetan ere hurbiltzen zaio Bonaparte Chahori, baita *iz* erroa (*h*)*itz* izenarekin parekatzen duelarik (Bonaparte 1877:42); oroit bedi latinean *verbum* hitzak zuen esanahi bikoitza.

Hirugarren pertsonan agertzen diren aurrizkiez den bezainbatean, Bonapartek ez ditu pertsona-markatzat hartzen, bere teorian pertsona-hizki guztiak izenordainkiak baitira, ez ahaztu. Agertu berri dugunez, *d*- erakuslearen zatia da; *z*- eta *l*- “letra erredundanteen” sailean sartuko lirateke, printzearen aburuz:

(21) Le *d* préfixe qui se trouve au présent de l'indicatif à régime de troisième personne et aux temps qui en dérivent, disparaît au passé et aux temps du même type. A la troisième personne on a un *z* rédondant [*sic*], qui à son tour se change en *l* au présent du conditionnel, au présent et aux futurs du potentiel conditionnel, ainsi qu'aux suppositifs et aux optatifs correspondants. (Bonaparte 1869:xi)

Irudi luke, bada, aurreko pasarteak nolabaiteko bilakaera iradokitzen duela: *d*- > *z*- > *l*-, alegia. Azkenik, aginterako aurrizkia *ba* baieztapenetik eratorrarazten du (Bonaparte 1869:158): “Nous avons en outre la suppression du *d* initial, et à la troisième personne l'addition de la syllabe affirmative *ba* fondue avec le terminatif: *dezan*, *beza*.” Izan ere,

⁹ **Ezan* aditz laguntzailea, baita **edin* ere, van Eysek berreraiki zituen bere gramatika konparatzailean (1879:196 hh). Laurogeietako hamarkadaren bukaeran aditz hauek rol berezia jokatu zuten Berlingo *Euskara* aldizkarian Bonaparte, van Eys eta Vinsonek Etxepare eta Leizarragaren hizkeren inguruan izan zituzten eztabaidetan (lan hauen aipamenerako, ik. Gómez 1989).

Bonaparteren analisisian hirugarren pertsonako subjektuaren marka berez \emptyset da beti; gogoan izan bedi objektuaren marka *au* erakuslea dela, dituen aldaera guztiekin ere:

(22) Que le *z* et le *l* de la troisième personne des temps passés et conditionnels soient rédundants [*sic*], en tant du moins qu'ils n'expriment pas le sujet, c'est ce qui est amplement prouvé par le biscalien qui supprime très-souvent ces consonnes initiales. Le sujet est toujours supposé être de troisième personne lorsqu'il n'est ni de première, ni de seconde. (Bonaparte 1877:45)

Bonapartek bere lehenbiziko lanetatik azpimarratu zuen euskaran objektu zuzenak duen berezitasuna: adizki iragankorretan beti adierazi behar da objektua, objekturik ez dagoelarik ere: “En basque la voix transitive du verbe est toujours objective pronominale” (Bonaparte 1862:22). Honen aldean, zeharkako objektua guztiz kontrako egoeran legoke: perpausean zeharkako objektua dagoelarik ere, gerta daiteke, Iparraldeko euskalkietan behinik behin, aditzarekiko komunztadurarik ez gordetzea. Gertakari hau, printzearen ustez, gazteleraren klitiko-bikoizketarekin lot daiteke, gazteleran euskararen eraginagatik gertatu baita; Iparraldeko euskalkietan, aldiz, klitiko-bikoizketarik ez duen frantsesaren eraginez gerta daiteke komunztadurarik eza (Bonaparte 1862:23; ik. orain Ortiz de Urbina 1994).

3.5. Campión (1884)

Campiónek funtsean Bonaparteren aditz-teoriari jarraitu zion. Haatik, Printzearen ideietatik urrundu zen *z-*, *l-*, *b-* aurrizkien etorkiari dagokionean; izan ere, Campiónen ustez, aurrizkiok antzinako izenordainen aztarnak lirateke:

(23) La conjugación nos revela la existencia de un sistema de pronombres más rico que el actual, con serlo tanto. Incorporados al verbo se han salvado de una total sumersión uno de primera persona, *t—d* «yo» y tres de tercera *z*, *l* y *b*, además de vários sufijos de pluralización ó abundanciales que yá no entran en la composición ni derivación nominal,... (Campión 1884:787-788)

Halaber, Campiónek Bonaparteren aditz-teoriaren arazo nagusietariko bat berraztertu zuen: *dut*-en paradigmán objektu zuzena markatzeko (*d*)*au* erakuslea azaltzen den ala ez. Zabalaren eta, beroni jarraiki, van Eys-en proposamenaren bertsio aldatu batean oinarritzen da; autore hauen iritziz, *dut*, *du*, etab. *daukat*, *dauka* eta abarren laburketak baino ez dira. Campiónek, aldiz, *eu* “erroa” dela *euki*-tik datorrena uste du:

(24) EU está tomado de EUKI directamente, no de EUKI yá conjugado, como suponen Zabala y Mr. Van Eys. (Cami3n 1884:792)

Eta, gainera, *euki*-ren etimologia proposatzen du; ‘honekin’ esanahia izango zuen:

(25) Su etimología parece ser la siguiente: EU variante de au «ésto» y KI, nombre primitivo que, á juzgar por sus derivados, significa «compañía, reuni3n[»], ú otro concepto análogo (Cami3n 1884:792)¹⁰

Hau da, *ni euki* ‘yo con esto’ eta *nik dut*, *nik daukat* ‘yo he, yo tengo’ pare-pareko adierazpenak lirerateke.

Baina non sartzen da *d*- aurritzia proposamen honen barruan? Cami3nek uste du *deus*-etik datorrela, hitz hori erromantzetiko mailegu garbia dela konturatu gabe. Irtenbide honen bitartez, Bonaparteren (eta Darrigolen, Chahoren eta abarren) iritzia salbatu ahal du, alegia adizki iragankorretan objektuarekiko komunztadura beti dagoelakoa —nahiz ez duen arazoa zehazki azaltzen— eta, abiapuntu horretatik, hipotesi tipologiko ausarta plazaratzen du:

(26) En cuanto al origen de la *d* aventuraré una hipótesis: que es un resto del vocablo DEUS «algo» [...]. Mi hipótesis presupone el hecho, tambien del todo hipotético, de que la lengua euskara ha pasado por un período de incorporaci3n [...]. La incorporaci3n, por lo tanto, correspondería á la infancia de la raza euskara. (Cami3n 1884:795)

3.6. Azkue (1891)

Aditz bakarraren teoria aldez edo moldez baliatu zuten autoreekin amaitzeko, Azkuek Bilboko Euskarako Katedrarako idatzi zuen gramatika-liburuaz zertxobait azaldu nahi nuke. Azkueren *Euskal-Izkindearen* iturri nagusia, Lakak (1986) ongi erakutsi zuenez, Astarloaren *Discursos Filos3ficos* liburua da (1804-1806 bitartean idatzia, itxuraz, baina 1883an lehenbizikoz argitaratua). Azkuek Astarloaren proposamenak gainditzten ditu, ustezko jatorrizko euskara berreraikitzen ahalegintzen baita, erabilera praktikora eramateko asmoz.

Astarloarengandik abiatzen den ideia bati jarraiki —oroit bedi (4)ko aipua—, Azkuek pertsona-komunztadura hizkiak pertsona-izenordainekin erlazionatzen ditu, *-t* atzizkiatz¹¹

¹⁰ Kontuan izan zenbait urte lehenago Bonapartek (1877:43) iradoki zuela *-ki* aditz atzizkia (*eduki*, *egoki*) eta *-ki(n)* deklinabide atzizkia gauza bera direla eta, hortaz, biek ‘kidetasuna’ esan nahi dutela.

zalantzak dituela aitortzen badu ere. Hirugarren pertsonako objektuaz den bezainbatean, urrundik ere Benveniste-ren formulazio ospetsua gogora ekartzen duen honako hau dio:

(27) Las cosas singulares ó las llamadas terceras personas¹ [1Muchas veces no suelen ser personas; *locutivos* nunca. Véase el párrafo 205.] solemos indicarlas con tres elementos: *d*, *b* y *l*. (Azkue 1891:185)¹²

Ondoren, aurrizki bakoitzaren banaketa zehatza ematen du eta, geroztik, Campiónek proposaturiko izenordain-jatorriarekin bat dagoela adierazten du:

(28) ¿Qué son, pues, *b*, *l* y *d*? ¿Cuál es su origen? Yo no lo sé.

Entre todos los pareceres que conozco, el de Campión es á mi juicio el que anda más cerca de la verdad: dice el escritor nabarro que parecen rastros de pronombres perdidos. (Azkue 1891:203)

4. Teoria pasibista

Jatorriz, teoria pasibista XIX. mende hondarrean sortzen da, zenbait hizkuntzaren morfologia ergatiboari azalpen berri bat eskaintzeko asmoz; izan ere, latindar gramatikaren ereduak markatzen zuen nominatiboa eta subjektua lotzeko joera handiegia baitzen oraindik ere. Aurrenik, Kaukasoko hizkuntzetan ezarri zen pasibotasunaren teoria eta geroxeago sartu zen euskalaritzan, lehenbizi Müller-en (1885) eta gero, xehetasun handiagoz, Stempf (1890) eta Schuchardt-en (1893) eskutik. Hein handi batean Schuchardt-en ospeak hartaraturik, hainbat euskalari, atzerritarrak batik bat, teoria pasibistari atxiki zitzaizkion, mende honen 60etako hamarkada arte nolabaiteko dotrina bihurtu zelarik, “une espèce de dogma” Oyharçabalek (1991:966) dioskunez.¹³

Pasibismoaren teoriak honako puntu hauek proposatzen ditu (erabilitako argudioak alde batera utziko ditut oraingoan):

a. Aditza subjektuarekin komunztatzen da.

¹¹ Bestalde, *-k* eta *-n* atzizkiei dagokienez, Azkuek, guztiz Astarloaren erara eta zehazki Errori jarraiki, ‘sendotasun’ (1891:110) eta ‘ahultasun’ (1891:183) esanahiekin lotzen ditu, hurrenez hurren: “*N*, a juicio del escritor de Erro, suele indicar debilidad y cuadra bien á hembras”.

¹² Gogoan har bedi *z-* ez duela aipatzen gramatika bizkaieran oinarritzen duelako eta iritzi garbizaleek hartara eramaten dutelako.

¹³ Euskalaritzatik at ere izan zen egitura ergatiboaren pasibotasunari buruzko eztabaida; ik. Seely (1977:197-199).

- b. “Nominatiboa” (hots, absolutiboa) da beti perpausaren subjektua, bai perpaus iragankorretan, baita iragangaitzetan ere.
- c. Ondorioz, perpaus iragankorretan aurkitzen duguna subjektu jasailea baino ez da. Hortaz, egitura pasiboak dira eta aditza aditz pasiboa dugu.
- d. Ergatiboa egile-osagarritzat hartzen dute, latineko egile-ablatiboaren antzera eta instrumentaletik oso gertu.

Lan honetan nabarmendu nahi nukeena hauxe da: absolutiboa beti subjektutzat jotzen dutenez, eta aditzaren eta subjektuaren arteko komunztadura derrigorrezkotzat hartzen dutenez, absolutiboarekiko komunztadura —eta, beraz, “gure” objektu zuzenarekiko— komunztadura nahitaezkoa da teoria honen baitan. Teoriaren alderdi honek aditzaren pasibotasuna hein batean Darrigolek-eta adierazitako analisiarekin lotzen du. Ildo honetatik Oyharçabalek (1991) ohartarazi digu pasibismoaren teoriaren eta aditz bakarraren teoriaren arteko loturez eta Chahoren gramatika-lanean aurkitu du, hain zuzen ere, “les premières éléments de la théorie de la passivité” (1991:969).

4.1. Stempf (1890)

Areago dena, Stempf-ek berak aitortzen du Chahok egindako *dut*-en analisia izan duela abiapuntu (oroit bedi (9)ko aipuan ageri den *da+houra+t*); hau da, euskarak ez duela egiazko adizki iragankorrik, denak direla *izan*-en adizkiak (Stempf 1890; *apud* Oyharçabal 1991).

Orobat, Chahok eskainitako aditz bakarraren aldeko beste argudio batzuk ere aurki ditzakegu Stempf eta Schuchardt-en lanetan euskal aditzaren pasibotasuna defendatzeko (Oyharçabal 1991:970-972), hala nola:

- a. **Ezan*-en adizkiak *izan*-en adizkien barruan sartzea (ik. (11)ko aipua), Bonaparteren teoriarekin ere lotuz.
- b. *Niz*-en paradigmako adizki inplikatioak eta alokutiboak (*zaitugu; nauk, dun,...*) *dut*-en paradigmakoekin parekatzea. Gogora bedi Chaho ere ohartu zela honetaz.

Hala ere, Chahok edo Bonapartek ez bezala, Stempf-ek ez du *-u-* erroa erakusletzat hartzen, *ukan* aditzaren errotzat baizik. Proposamen hau Vinsonek plazaratu zuen lehenbizikoz, Bonaparteren eta van Eys-en¹⁴ teoriei erantzuteko hain zuzen ere. Horrela bada,

¹⁴ Van Eys-ek, lehenbiziko lanetan behinik behin (1874, 1875), *dut*-en paradigmako adizkiak *eroan*-en forma laburtuak zirela proposatu zuen.

adizki iragankorretarako Stempf-ek ematen duen analisiak garbiro Darrigolek (1827) adizki trinkoetarako eman zuena dakarkigu gogora:

- (29) i. *nauzu* = *naiz* + *ukan* + *zuk*
 tu m'as = *je suis* + *eu* + *par toi* (Stempf 1890:4)
- ii. *nintuzun* = *nintze(n)* + *ukan* + *zuk* + *n*
 vous m'aviez = *j'étais* + *eu* + *par vous* (Stempf 1890:8)
- iii. *nakarzu* = *naiz* + *ekar* + *zu*
 vous me portez = *je suis* + *porté* + *par vous* (Stempf 1890:6)

4.2. Schuchardt (1893, 1895, 1923)

Ezer baino lehen, ohartarazi behar da Schuchardt-ek ez dituela erabiltzen Stempf-ek hain gogoko zituen goiko asmakuntza horien gisakoak (Oyharçabal 1991:973). Azter dezagun orain hurrengo arazo hau: pasibisten ustez subjektuak (betiere nominatibo-absolutiboan) aditzarekin komunztatu behar badu eta, aldi berean, laguntzaile iragankorreen (*du*) hirugarren pertsonako “subjektuarekiko” komunztadura markatzeko erakuslea dagoela (*-u-* osagaian alegia) arbuiatzen badute, nola burutzen da, orduan, hirugarren pertsonako subjektuarekiko komunztadura adizki “pasibo” edo iragankorretan? Konponbidea tradiziozko teoriara itzultzea da: *d-* izenordain-jatorrikoa dela proposatu eta, bestalde, *-u-* osagaia aditz-errotzat, zehazkiago *ukan*-en errotzat, hartzea. Ikus ditzagun Schuchardt-en (1895:208) adibide batzuk:

- (30) i. *darot (=dit)* = *da* *du* (*ki*) *t*
 cela *avoir* *à* *moi*
- ii. *dakot (=diot)* = *da* (*du*) *k(i)* *o* *t*
 cela *avoir* *à* *lui* *moi*

Izan ere, Vinsonek analisi hauxe hartzen du, besteak beste, pasibotasunaren aurkako argudioen artean:

(31) Quand on traduit *du* «il l'a», l'expression manque du signe du sujet, puisque *u* est le radical «avoir» et *d* le pronom régime de troisième personne; quand on le traduit comme M. Schuchardt «il est eu par lui», c'est l'instrumental «par lui» qui fait défaut, ce qui est beaucoup plus difficile à comprendre. D'autre part, le pronom régime direct de troisième personne, pour nous, c'est-à-dire le sujet de M. Schuchardt, manque absolument aux formes de l'imparfait. Tout cela est fort étrange. (Vinson 1895:81)

Vinsonen azken baieztapen hau ulertzeko, esan behar da Schuchardt-ek ez zituela orainaldiko adizkiak bakarrik aztertu eta aurrizki bakoitzaren jatorria proposatzen ahalegindu zela, orainalditik kanpo izenordainen aztarna gutxi aurkitzen dugularik ere, itxuraz bederen:

- a. *D(A)*:- Ikusi berri dugunez, Schuchardt-en (1893 [1972:271]) aburuz, **da* hirugarren pertsonako antzinako izenordaina izan zitekeen.
- b. *Z*:- Schuchardt-ek (1893 [1972:222-223]) hedapen analogikoa proposatu zuen hemen, *zan*-etik abiatuz; bertan *z*- osagaia *izan*-en erroaren zatia litzateke. Analogia *za-n* → *z-an* berranalisitik abiatuko litzateke, lehenik *z*- aurrizki berria *z-uen* adizkira eta, geroago, gainontzeko aditzetara hedatuko zelarik.
- c. *L(E)*:- Uste dut Schuchardt-ek (1923 [1947:44-45]) iradoki zuela aurreneko aldiz *l*- aurrizkia *ahal*-en arrastoa izan zitekeela.
- d. *B(E)*:- Van Eys-ek (1865:59) eta Schuchardt-ek (1923 [1947]:56) aurrizki hau hirugarren pertsonako *bera* izenordaineekin lotu zuten.¹⁵

5. Tradiziozko teoria

Ikusi dugunez, aditz bakarraren aldeko azken autoreak (Camió n eta Azkue: ik. §3.5. eta 3.6.) eta pasibotasunaren aldekoak, azken buruan, tradiziozko teoriarekin elkartzen dira: izan ere, haiek guztiek *d*-, *z*- (\emptyset -), *l*- eta *b*- aurrizkiak hirugarren pertsonako (izenordain-)markatzat hartu zituzten. XIX. mendeko beste egile batzuek ere aldarrikatu zuten, esplizituki edo inplizituki, aurrizkiok pertsona-hizkiak zirela, hala nola Lécluse, Zavala, Lardizabal, Vinson, van Eys, Ribáry, etab. Azken hau hartuko dut hizpide, alde batetik, ziur aski aipatu guztietarik ezezagunena delako eta, bestetik, zenbait proposamen interesgarri egin zituelako. Ondoren, XX. mendean oso eragin handia izan zuten Azkueren morfologian (1923-25) eta Lafitte-ren gramatikan (1943) agerturiko iritziak laburtuko ditut, tradiziozko teoriaren erakusgarri.

5.1. Ribáry (1877)

Ribáry hungariarra zen eta hungarieraz idatzi zuen bere euskal gramatika. XIX. mendearen bigarren erdiko euskalarien artean erdietsi zuen entzutea, urri samarra izanik ere, Vinsonek eginiko frantses itzulpenari zor zaio eta, batik bat, itzulpenarekin batera Vinsonek berak

¹⁵ Aurrizki hauei buruzko ondorengo eztabaida eta proposamenen laburpen baterako —bereziki Lafon (1943), euskal aditzaren pasibotasuna aldarrikatu zuen azkenetarikoa—, ik. Gómez & Sainz (1995:254-256).

idatziriko sarrera eta ohar osagarriari, Bonaparteren erantzuna merezi izan baitzuten (Bonaparte 1877). Ribáryren datu-iturri nagusiak Larramendi eta Lardizabalen gramatikak dira eta, euskararen gaineko hausnarketei dagokienez, Mahn-en (1875) liburuxka, ordea.

Nabari da Ribáryk ez dakiela euskaraz ia ezer, ezta euskalaritzaren aurreko tradizioaz ere, eta honek hurbilketa arras berria baina, aldi berean, aski nahasia sortarazten dio. Hori dela-eta, liburuan zehar nahiko kontraesan eta iritzi aldaketa aurkitzen ditugu; analisi xehe batek erraz arbuiatzen dituen proposamen burugabeak han-hemen sakabanatzen ditu, eta erabat garatzen ez duen zorioneko intuizio bat edo beste kausi dezakegu.

Esaterako, lehen pertsonako *-t* atzizkia *denik* edo *dunik* formen laburketa delako proposamen harrigarria Mahn-engandik hartzen du (Ribáry 1877:31). Halarik ere, aldi berean *-da* atzizkian “1. pertsonako izenordain zahar baten datiboa” ikusi uste du (1877:37).

Aurrizkiei dagokienez, ahal den neurrian izenordainetatik eratortzen saiatzen da — gainerako pertsonetako hizkietan aski garbi ikusi duena—, noizik behin ustekabeko emaitzak lortzen dituelarik:

- a. *D-*: Objektu zuzenaren markatzailea delakoan dago, antzinako izenordain baten aztarna (Ribáry 1877:32-33).
- b. *Z-*: Proposamen ezin gaurkoagoa dakar (cf. Gómez & Sainz 1995:255, 266):

(32) ...la dérivation du suff. de 3^e pers. est obscure, le *z* ou *se* ne peut se tirer de *ark*: on pourrait songer au pronom *zer*, *zerk* «lequel, quoi», mais c'est vraiment à peu près impossible. (Ribáry 1877:46)

- c. *B-*: Lafonen iritzia aurreratzen du, itxuraz bederen:

(33) Le *b* des 3^e pers. sing. et plur. est identique avec le préfixe *ba*, qui exprime le désir [*sic*], comme en français la conjonction *que*; ainsi *beza* = «qu'il ait», *bédi* = «qu'il soit». (Ribáry 1877:48)

5.2. Azkue (1923-25)

Tradiziozko teoria XX. mendearen lehen erdian eragin handiena izan zuten bi gramatiketan ere aurkitzen dugu: Azkueren morfologian (1923-25) eta Lafitte-ren gramatiketan (1943), hain zuzen.

Azkuek aurrizkien distribuzioaren berri ematen du egoki, baina guztiak “características de paciente” direla dio (aipuko <r> tildedunak <rr> aldatzen ditut):

(45) En las terceras personas hay varias características: 1^a *d* en indicativo, subjuntivo y potencial próximos: *dator* viene, *datorrela* que venga, *datorke* puede venir. 2^a *z* en los mismos modos remotos: *zetorren* podía venir. En dialecto B la característica de esas flexiones es cero en casi todos los verbos conjugables: *etorren*, *etorrela*, *etorkean*. 3^a *b* en imperativo: *betor* venga, siendo de advertir que tal elemento paciente, en la mayoría de los pueblos del B, sólo se usa hoy en tratamiento de *berori* vuesa

merced [...]. 4^a *l* en hipotético, condicional y potencial remoto: *baletor* si él viniera, *letorke* él vendría, *etorri leiteke* pudiera venir. Las terceras personas plurales tienen las mismas características. Se distinguen de las flexiones singulares en el elemento pluralizador *z* de los pacientes y *e* de los agentes. (Azkue 1923-25:539-540)

Aurreko aipua hobeki ulertzeko, ohartarazi behar nuke Azkuek *Euskal-Izkindean* (1891) erabili zuen aditz-denbora hurbilen eta urrunekoan (*próximos* eta *remotos*) arteko bereizketa darabilela *Morfologían* ere: *dakart* / *nekarren* (cf. Azkue 1923-25:529).

Azkuek aurrizkien etorkiari buruzko aurreko proposamen batzuk berrikusten eta iruzkintzen ditu:

- a. Schuchardt-en (1893) *z*-ri buruzkoa (ik. §4.2) aipatzen du, baina ez du inolako iritzirik ematen; pentsa genezake, beraz, Azkuek *z*- aurrizkiaren etorki analogikoa onartzen duela.
- b. Campiónen (1884:794) *d*-ri buruzkoa (ik. §3.5) kritikatzeko du, *deus* —*ezer* bezala eta *zerbait* ez bezala— ezezkako polaritadedun testuinguruetan baino ezin baita agertu, gaurko hitzez adieraztea zilegi bazait. Onartzen du, ildo beretik, Schuchardt-ek proposaturiko etimologia: *deus* < proventzaleko *degus* ‘inor ez’.¹⁶
- c. Schuchardt-en *d*-ren gainekoari harrera ona egiten dio. Areago dena, Azkuek egoki deritza aitzineuskarako osagaien (*elementos prevascos*) zerrenda zabaltzeari, *l*-aurrizkia eta *-z* pluralizatzailea ere sartuz. Izan ere, Azkueren aburuz, hiru osagai hauek ez dute gaurko izenordain-sisteman inongo kiderik, aginterako *b*- aurrizkiak ez bezala: cf. *berau*, *berori*, *bera* (Azkue 1923-25:542; baina ik., orobat, Gómez & Sainz 1995:255-256).
- d. Bonaparteren *-o-* eta *d*-ri buruzkoak (ik. §3.4) ez ditu onartzen; Azkuek ez du uste bi hizkiok erakusleetatik datozenik.
- e. Azkenik, Bonaparteren *b*-ri buruzkoa ere (*beza* < *ba* + *dezan*; 1869:158) arbuiatzen du. Azkueren ustez, *b*- aurrizkia baieztapenetik baletor, ezin izango lirateke aginterako adizkiak ezeztapenarekin batera erabili, bere aburuz adizki bakarra sortzen baitute: “*ezbedi* (*ezpedi*)” (Azkue 1923-25:542).

¹⁶ *Deus*-en etimologiaz, ik. Agud & Tovar (1991: s.v.).

5.3. Lafitte (1943)

Lafitte-k erakusten digun honako taula honi (eta beste hainbati) erreparatzen badiogu, garbiro ikus dezakegu tradiziozko teorian koka daitekeela bere gramatika:

1. Taula

	PRÉSENT	IMPÉRATIF	ÉVENTUEL	PASSÉ
<i>Le</i>	D — =	B — =	L — =	Z — =
<i>Me</i>	N — =		Nind — =	Nind — =
<i>Te</i>	H — =	H — =	Hind — =	Hind — =
<i>Les</i>	D — z =	B — z =	L — z =	Z — z =
<i>Nous</i>	G — z =	G — z = n	Gind — z =	Gind — z =
<i>Vous</i> (s.)	Z — z =	Z — z =	Zind — z =	Zind — z =
<i>Vous</i> (pl.)	Z — z = te	Z — z = te	Zind — z = te	Zind — z = te

(Lafitte 1943:244)

Nolanahi ere den, Lafitte-k ez du hirugarren pertsonako aurrizkien jatorriaz ezer zehatzik adierazten, ez izenordainetatik ez beste nonbaitetik datozenik.

Beste alde batetik, Lafitte-k uste du hirugarren pertsonako objektua agertu gabe ere ulertu behar dela, are objektu jakinik ez dagoen esaldietan, aspaldi Darrigolek eta Chahok iradoki eta Bonapartek bere teorian garatu zuen bezala:

(46) En français, on peut dire: *il chante, je mange, tu bois*; en basque, il faut exprimer le complément en quelque manière; et, s'il est indéterminé, on suppose une 3^e personne du singulier de valeur indéfinie ou neutre. (Lafitte 1943:357)

6. Aspektu-denborazko teoria

Lan honetan zehar ikusi dugunez, *d-*, *z-* (\emptyset -), *l-*, *b-* aurrizkiak denbora eta moduen arabera banatzen direla aski goiz hautemandako zerbait da (ik., esaterako, Bonaparteren (21)ko aipua). Halarik ere, luze itxaron beharko dugu aurrizkiok pertsona-komunztadura hizkiak direlako iritzia baztertu eta, haren ordeaz, modu, denbora edota aspektuaren markatzaileak direla proposatu arte.

Alberdik (1989:778) Saroïhandy-ri (1918) egotzi dio gogoeta honen lehentasuna, nahiz eta Saroïhandy-k berak aitortzen duen ezin duela aurrizki bakoitzaren etorkia argitu. Ondoren,

pentsabide hori *Fontes Linguae Vasconum* aldizkarian argitaraturiko bi artikulutan berragertu zen, artean ia inork erreparatu ez bazien ere: Pennaod (1970) eta Oregi (1974), alegia. Haatik, Trask-ek (1977) bere kasa gisa bereko proposamena plazaratu zuenetik, gero eta euskalari gehiago atxiki zaizkio; esan liteke gaur egun ia aho batez onartzen dela.¹⁷ Ezpairik gabe esan liteke teoria honi bultzada handia eman ziola De Rijk-ek (1992) proposatu *d*-aurrizkiaren etimologia: **da* antzineuskaran ‘orain’ adierazteko hitza dugu eta, hortaz, orainaldiko adizkietan agertzea zeharo ulergarri gertatzen da (*d*-ri buruzko ikuspuntu desberdin baterako, ik. Rotaetxe 1998).

Aspektu-denborazko teoriaren berehalako ondorioa honakoa dugu: hirugarren pertsonako argumentu absolutiboak (hala subjektu iragangaitzak nola iragankorretako objektuak) adizki-konplexuan pertsona-ukomunztadura hizkirik gabe geratzen dira, agerian behinik behin. Hala bada, argumentu ergatiboen egoerara hurbiltzen dira nolabait.

Teoria honetatik abiaturik, azken urteotan arazo hauen inguruko azterketak ugaldtu dira: besteak beste, Laka (1988), Gómez (1994), Elordui (1995), Gómez & Sainz (1995), Fernández (1997), Albizu & Eguren (2000), Ormazabal & Romero (2000). Nolanahi ere, aurritzion jatorriaz adostasuna ia erabatekoa den arren, zenbait lanetan aurritzikiak hirugarren pertsonaren markatzailatzat hartzen jarraitu da, kasuan kasuko egilearen analisi sinkronikoak egokiagotzat jotzen zuenean.

7. Azken oharra

Aurreko orrialdeetan euskal aditzaren objektu-komunztadurari buruz izan diren ikusmoldeak aurkezten saiatu naiz. Arreta berezia jarri dut, halere, zeresan gehien eman duten hirugarren pertsonako aurritzien izaeraz eta jatorriaz esan direnetan, hauexetan nabarmentzen baitira, nik uste, teoria desberdinen arteko alderik markagarrienak. XIX. mende hasieran kausitzen ditugu euskal aditzaren morfema-egiturari buruzko lehen azterketak, nola edo hala gramatika orokorrari atxikiak gehienbat. Astarloari zor diogu, hain zuzen, euskal aditzaren aurreneko morfema-banaketa, baita tradiziozko teoria deitu dudanaren oinarriak ezartzea ere. XIX. mendeko autore gehienek gramatika orokorrean hainbesteko arrakasta izan zuen aditz bakarraren teoriaren eredura egituratu zituzten beren azterketak. Mendearen hondarrean

¹⁷Aipa dezadan, erakusgarri gisa, Euskaltzaindiaren gramatikak ere onartu duela azterbide hori (Euskaltzaindia 1987:143).

euskal aditzaren pasibotasunaren teoriak lortu zuen euskalarien harrera ona, eta halaxe iraun zuen XX. mendeko 60etako hamarkada arte. Hala aditz bakarraren nola pasibotasunaren aldekoek —zeinek bere jarrera teoriko desberdinetik— hirugarren pertsonako objektu-komunztadurari buruzko ondorio bertsua erdietsi zuten: beti markatzen da, are esaldian objektu jakinik ez dagoenean ere. Mende honetako 70etako hamarkadan, ikuspuntua zeharo aldatzen da; hirugarren pertsonan agertzen diren aurrizkiak ez dira geroztik pertsona-hizkitzat hartzen eta modu, aspektu eta denborarekin lotzen dira; ondorioz, hirugarren pertsonako objektu-komunztadura ez dela agerian markatzen proposatzen du aspektu-denborazko teoriak. Nabarmentzekoa iruditzen zait azken puntu hau; izan ere, mende bat eta erdiko epean adizki iragankorretan hirugarren pertsonako objektua beti markatzen dutela (are objekturik ez dagoenean ere) pentsatzetik objektu-markarik inoiz ez dagoela (are objektua dagoenean ere) proposatzera pasatu da.

Aipamenak

- Alberdi, Javier. 1989. "Euskararen morfologiazko ikerketak (1900-1936)." *ASJU* 23:3, 769-796.
- Albizu, Pablo & Luis Eguren. 2000. "Ergative Displacement in Basque." W. U. Drexler et alii (arg.), *Morphological Analysis in Comparison* (Current Issues in Linguistic Theory 201). Amsterdam & Philadelphia: John Benjamins. 1-25
- Agud, Manuel & Antonio Tovar. 1991. *Diccionario etimológico vasco III*. (ASJUren gehigarriak, 24). Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Astarloa, Pablo Pedro. 1803. *Apología de la lengua bascongada, ó ensayo crítico filosófico de su perfeccion y antigüedad sobre todas las que se conocen: en respuesta á los reparos propuestos en el Diccionario geográfico histórico de España, tomo ii, palabra Navarra*. Madril: G. Ortega.
- Astarloa, Pablo Pedro. 1883 [ca. 1804-1806]. *Discursos Filosóficos sobre la lengua primitiva ó Gramática y análisis razonada de la euskara ó bascuence*. Bilbo: P. Velasco.
- Auroux, Sylvain (arg.). 1992. *Histoire des idées linguistiques. Tome 2*. Liège: Mardaga.
- Auroux, Sylvain & Geneviève Clérico. 1992. "France." Auroux (arg.) 1992, 359-386.
- Azkue, Resurrección M^a de. 1891. *Euskal-Izkindea. Gramática eúskara*. Bilbo: J. de Astuy.
- Azkue, Resurrección M^a de. 1923-25. *Morfología vasca*. Bilbo: Euskaltzaindia. Lehen arg. *Euskera* 4, 5, 6:1. Berrarg. faksim. Bilbo: LGEV, 1969, 3 lib.
- Bonaparte, Louis-Lucien. 1862. *Langue basque et langues finnoises*. Londres: Strangeways & Walden.
- Bonaparte, Louis-Lucien. 1869. *Le verbe basque en tableaux*. Londres: Strangeways & Walden. (Berrarg faksim. *OOVI*, 175-442.)
- Bonaparte, Louis-Lucien. 1876. "Remarques sur plusieurs assertions de M. Abel Hovelacque concernant la langue basque, accompagnées d'observations grammaticales et bibliographiques." *Revue de Philologie et d'Ethnologie* 2:3, 23. (Separata: Londres: Strangeways, 1876.)

- Bonaparte, Louis-Lucien. 1877. "Remarques sur certaines notes, certaines observations et certaines corrections, dont M. J. Vinson a accompagné l'Essai sur la langue basque par F. Ribáry." *Actes de la Société Philologique* 7:2, 51-115. (Separata: Londres: Strangeways, 1877.)
- Campión, Arturo. 1884. *Gramática de los cuatro dialectos literarios de la lengua euskara*. Tolosa: E. López. (Berrarg faksim. Bilbo: LGEV, 1977, 2 lib.)
- Chaho, Joseph Augustin. 1836. "Grammaire euskarienne." Antoine Th. d'Abbadie & Joseph A. Chaho, *Études grammaticales sur la langue euskarienne*. Paris: A. Bertrand.
- Darrigol, Jean-Pierre. [1827]. *Dissertation critique et apologétique sur la langue basque, par un ecclésiastique du diocèse de Bayonne*. Baiona: Duhart-Fauvet.
- Dominicy, Marc. 1992. "Le programme scientifique de la grammaire générale." Auroux (arg.) 1992, 424-441.
- Donzé, Roland. 1967. *La grammaire générale et raisonnée de Port-Royal. Contribution à l'histoire des idées grammaticales en France*. Berna: A. Franke. (Gazt. itz. Buenos Aires: Eudeba, 1973.)
- Elordui, Agurtzane. 1995. *Hizkuntza heriotza eta aldaketa morfologikoa: hegomendebaldeko bizkaieraren kasua*. UPV/EHUko dotorego tesi argitaragabea, Gasteiz.
- Euskaltzaindia. 1987. *Euskal gramatika: lehen urratsak - II*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Fernández, Beatriz. 1997. *Egiturazko kasuaren erkaketa euskaraz*. Bilbo: UPV/EHuren Argitalpen Zerbitzua.
- Gavel, Henri. 1930. "Observations sur la passivité Basque." *RIEV* 21, 1-14.
- Gavel, Henri & Georges Lacombe. 1937. *Grammaire Basque. Tome II. Premier fascicule. Le Verbe*. Baiona: Imp. de la "Presse".
- Gómez, Ricardo. 1989. "Bonaparte printzearen inguruko hizkuntz eztabaidak." *ASJU* 23:2, 355-392. (Berrarg. in Gómez & Lakarra (arg.) 1992, 429-466.)
- Gómez, Ricardo. 1994. "Euskal aditz morfologia eta hitzordena: VSO-tik SOV-ra?" J-B. Orpustan (arg.), *La langue basque parmi les autres: influences, comparaisons. Actes du Colloque international de l'URA 1055 du C.N.R.S. (Bayonne 27-28 septembre 1993)*. Baigorri: Izpegi. 93-114.
- Gómez, Ricardo. 1999. "El verbo en movimiento: una teoría sobre el verbo vasco de comienzos del XIX." M. Fernández, F. García & N. Vázquez (arg.), *Actas del I Congreso Internacional de la Sociedad Española de Historiografía Lingüística*. Madrid: Arco/Libros. 347-360.
- Gómez, Ricardo & Joseba A. Lakarra (arg.). 1992. *Euskalaritzaren historiaz, I: XVI-XIX. mendeak*. (ASJUren gehigarriak, 25). Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia-EHU.
- Gómez, Ricardo & Koldo Sainz. 1995. "On the Origin of the Finite Forms of the Basque Verb." J. I. Hualde, J. A. Lakarra & R. L. Trask (arg.), *Towards a History of the Basque Language*. Amsterdam & Philadelphia: John Benjamins. 235-274.
- Gómez Asencio, José Jesús. 1985. *Subclases de palabras en la tradición española (1771-1847)*. Salamanca: Universidad de Salamanca.
- Inchauspe, Emmanuel Th. 1858. *Le verbe basque*. Bayona-París: Lamaignère-B. Duprat. (Berrarg. faksim. Donostia: Hordago, 1979.)
- Koerner, E. F. Konrad & R. E. Asher (arg.). 1995. *Concise History of the Language Sciences: From the Summerians to the Cognitivists*. Oxford-New York: Pergamon.
- Lafon, René. 1943. *Le système du verbe basque au XVI^e siècle*. Bordele (Berrarg. faksim. Baiona-Donostia: Elkar, 1980.)
- Laka, Itziar. 1986. "Euskal Izkindeako aditza (Hiperbizkaieraren historiaz II)." *ASJU* 20:3, 705-754.

- Laka, Itziar. 1988. "Configurational Heads in Inflectional Morphology: The structure of the inflected forms in Basque." *ASJU* 22:2, 343-365.
- Lakarra, Joseba A. 1987. "Lécluse-ren euskal gramatika. Euskalaritzaren historiako lanabesak (I)." *ASJU* 21:3, 813-916.
- Lakarra, Joseba A. & Blanka Urgell. 1988. "Lécluseren hiztegia. Euskalaritzaren historiako lanabesak (II)." *ASJU* 22:1, 99-211.
- Lardizabal, Francisco I. 1856. *Gramática Vascongada*. Donostia: I. R. Baroja.
- Larramendi, Manuel de. 1729. *El imposible vencido. Arte de la lengua bascongada*. Salamanca: A. J. Villagorde. (Berrarg. faksim. Donostia: Hordago, 1979.)
- Lécluse, Fleury. 1826. *Manuel de la langue basque*. Tolosa-Baiona: J. M. Douladoure- L. M. Cluzeau. (2. arg. Baiona: P. Cazals, 1874. Berrarg. faksim. in Lakarra 1987 eta Lakarra & Urgell 1988.)
- Mahn, Carl A. F. 1875. *Denkmaeler der Baskische Sprache*. Berlin: Dümmler.
- Müller, Friedrich. 1885. "Ueber die Sprache der Basken." *Grundriss der Sprachwissenschaft* III, 2:1, 1-48.
- Oregi, Josu. 1974. "Euskal-aditzaz zenbait gogoeta." *FLV* 17, 265-283.
- Ormazabal, Javier & Juan Romero. 2000. "3. komunztaduraren eza." J. Lakarra (arg.), *Koldo Mitxelena Katedraren I. Kongresua*. Inprimategian.
- Ortiz de Urbina, Jon. 1994. "Datibo komunztaduraren gainean." R. Gómez & J.A. Lakarra (arg.), *Euskal dialektologiako kongresua (Donostia, 1991ko irailak 2-6) (ASJUren gehigarriak, 28)*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia. 579-588.
- Oyharçabal, Beñat. 1991. "Note sur les antécédents romantiques de la théorie de la passivité du verbe dans les études euskariennes." *ASJU* 25:3, 965-975.
- Oyharçabal, Beñat. 1998. "A. Abbadieren euskal gramatikari buruzko ideiak eta ordu arteko euskal gramatikagintza." *Antoine d'Abbadie 1897-1997. Congrès International. Eusko Ikaskuntza. Ezohizko Kongresua. Euskaltzaindia. XIV. Biltzarra. (Hendaye-Sare 1997)*. Donostia eta Bilbo: Eusko Ikaskuntza-Euskaltzaindia. 431-451.
- Pennaod, Goulven. 1970. "Racine et radical dans le verbe basque." *FLV* 6, 249-267.
- Ribáry, Ferencz. 1877 [1866]. *Essai sur la langue basque*. Paris: F. Vieweg. (1. arg. «A baszk nyelv ismertetése», *Nyelvtudományi közlemények* 5 (1866), 37-75, 426-474.)
- Rijk, Rudolf P. G. de. 1992. "'Nunc' Vasconice." *ASJU* 26:3, 695-724. Ing. itz. laburtua: "'Nunc' in Old Basque." Hualde, Lakarra & Trask (arg.), 1995, 295-311.
- Rotaetxe, Karmele. 1998. "Structure des formes verbales finies en Basque." *Bulletin de la Société de Linguistique de Paris* 93:1, 289-322.
- Saroihandy, Jean. 1918. "Remarques sur le verbe labourdin." *RIEV* 9, 173-212.
- Schuchardt, Hugo. 1893. *Baskische Studien I. Über die Entstehung der Bezugsformen des baskischen Zeitworts*. (Denkschriften der Wiener Akademie der Wissenschaften 42). Viena: Tempsky. (G. Bähr-en gazt. itz., "Sobre la formación de las flexiones de relación del verbo vasco.", *BAP* 28:2/3 (1972). 217-337.)
- Schuchardt, Hugo. 1895. "Le verbe basque; à M. Julien Vinson." *RLPhC* 28, 200-209.
- Schuchardt, Hugo. 1923. *Primitiae Linguae Vasconum. Einführung ins Baskische*. Halle: Niemeyer. (Gazt. itz. Salamanca: Colegio Trilingüe-CSIC, 1947.)
- Seely, Jonathan. 1977. "An Ergative History." *Historiographia Linguistica* 4:2, 191-206.
- Stempf, Victor. 1890. *Besitzt die Baskische Sprache ein transitives Zeitwort, oder nicht?*. Bordele. Egilearen beraren fr. itz. arekin batera agertua: *La langue basque possède-t-elle, oui ou non, un verbe transitif?*.
- Trask, R. L. 1977. "Historical Syntax and Basque Verbal Morphology: Two Hypotheses." W. A. Douglass, R. Etulain & W. H. Jacobsen (arg.), *Anglo-American Contributions to Basque Studies. Essays in Honor of Jon Bilbao*. Reno: Univ. of Nevada. 203-217.

- van Eys, Willem J. 1874. *Le verbe auxiliaire basque*. Paris: Maisonneuve.
- van Eys, Willem J. 1875. *Étude sur l'origine et la formation des verbes auxiliaires basques*. Paris: Maisonneuve.
- van Eys, Willem J. 1879. *Grammaire comparée des dialectes basques*. Paris: Maisonneuve.
- Vinson, Julien. 1894. "Les théories nouvelles sur le verbe basque." *RPhC* 27, 95-110.
- Vinson, Julien. 1895. "Le verbe basque, M. H. Schuchardt et la théorie passive." *RPhC* 28.73-86.
- Wheeler, Garon. 1995. "Port-Royal Tradition of General Grammar." Koerner & Asher (arg.) 1995, 169-174.

Euskal Filologia Saila
Filologia eta Geografia-Historia Fakultatea, UPV/EHU
2111 P.K.
01006 Vitoria-Gasteiz

fvpcolor@vh.ehu.es